

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

293n. zenbakia  
martia 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## LIEBANA

### AGE-BURU BI:

- IDIA, LEKAIDEARI ETXEA EGITEKO LAGUNTZEN
- ARTZA, LEKAIDEARI ETXEA EGITEKO GALAZO EUTSONA

**BIAK, JAINKOAREN AGINDUZ,  
LAGUNTZAILE**

# EUZKADI'REN GEROA

## Justizi-bidez pakera ta alkarbizitzera

Orañaldiak kezkatzen gaitu. Nola ez, ba! Onek ez du esan gura, gu ongi ta al dugun lasaien biziz, datozenak "or konpon!" ajolagabetsuarekin utzi nai ditugunik. Ez olakorik. Emen ez da ñor, nere ustez, gure ondoren datozentzat alik eta paketsuen dana lagatzeko saiatzen ez danik.

Geroaren sekretua daukanik ez da. Kuxelu gorde ta gandutsu ori, gogozko altxor eta edukiñez mukururu iriki ta argitzeko alperrik da auzengana joatea. Zer esango diguten bai bait-dakigu: arrixkuak izango ditugula, ixtillu ta gatatzak, zilipurdiketak eta zurrunbilloak, urduritasunak eta ezin-egonak; baiñan, beltzikusberak ez geralako, itxaropenak bere magal lasaigarria eskeintzen digula, etsipenari langa jarririk. Au dana, munduak berekin dakarren izurritea da-ta.

Ustekizun eta aburuak beti interesatuak izan oi dira galdera oni erantzuna ematerakoan. Oso-ezak gañera, norbakoitzaren pentsamentuaren eskemari atxikiak. Naiak eta sentimenduak bultzaka datozkigu. Beraz, auek zer-ikusi aundia dute gu bakoitzarengan buru-eskema eratzerakoan.

Abertzale naizenez, nik, adibidez, biarko Euzkadi'ren geroa zoritxarrekoa izan ditekunik ezin susmatu dut. Nere Erria'rentzat, ez guztia baiñan bai geiena beintzat ona izango zaiola errea zait iruditzea eta pentsatzea. Eta zoritxarrak jo ta abaildu dezakenik etzait nere biotz eta buruan sartzen, artarako albideak irudiz ukatu-eziñarren.

Nola ez dut ba, Euzkadi nere aberria bizirik eta etorkizun loretsuz asebetea amestu ta irudituko? Ba'dira ontarako gauzaldetiko arrazoiak gaurko askatasun-bide arantzatsua lorez eta masusta gozagarriz beteko zaigula pentsarazteko ditugunak.

Munduak jakin ba'dakigu garapen-krisi betean dagoala. Gizarte-egiturak kili-kolo dakuskigu eta politika-arazoak zunburrunka. Noizpaiteko ainbat gogo-balorek auldu edo lur jo digute. Ta auetatik batzuk, gaurko gizakiaren neurrirako ta azkunderako ez dira baliagarri. Joera ta gauza guztietan, ideietan eta bizikeran, billakaerak (burrukak eragiñik, sarri) guzti-guztia aldarazten du.

Bestalde, norberekoikeri zantarrak asko dezake. Ez dugu danok berdin pentsatzen eta eraberean jokatzen. Manipulatzailleak, "aprobetxategiak" eta dirua jainkotu digutenak ez dira urri, damuz. Ba'dakite alakuok, nun diran lur guriak, irabazkorak. Besteen alorak, al ba'dute, irakaz eta mixerri-xomorrez bete eta eurenak, alderantziz, ongarriz gizenduko dizkigute. Esku-lan gogorrez erein ta goldetutako lurretan uzta jasotzeko, kazkabarra baiño kaltegarriagoak zaizkigu.

Baiñan agirian dago gure bizialdi onek justizi-egarriz garraxika diarduala. Eta justizia bideratzeko, gaur arteko politika-egiturak eta bestelakoak oso estu ta atzerakoiak zaizkigula.

Asko egin du gizakiak gaitzak sendatzeko, bizitza luzarazteko, gauza berriak tankeratzeko eta teknologia miragarriz urrunera begiratu ta irixteko. Zer ordea indarkeria deusezteko? Eta au premia dugu Euzkadi obedian jartzeko.

Eta noiz ez du gizakiak lerrenak egin mundua obetzeko? Agian, gure antziñateko arbasoa, bere eian ta albi-de exkaxekin ez al zan gaurko euskaldunaren antzeko aurrera-zale?

Len bezela, sendia izango dugu gure seaska, eskola, aterpe ta babesleku. Odolez lotzen gaituztenekin jarrai dezagun alkar-bizitza maitasunez ziurtatzen eta edatzen; eta gure premiak eta igurikapenak alkarbidezko lanaz jatorki bideratzen.

Euzkadi zoriotsua gure elburu.

Egaña'tar Gotzon

## ELEIZAREN EDESTIA EUSKERAZ

### GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martiriaren denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza.
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.
- IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.

Liburu bakoitza 500 orrialde inguru dira.

**Ordaiña:** Bakoitza sei euro.

Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

**Eskatu:** Martin Olazar  
XXIII Jon Z. enparantza 2.  
48100 Mungia - Bizkaia  
Tel. 94 674 01 23

# EZ DOZU IÑOR ILGO

## BETIRAKO

Sinai mendian eta arri-losetan idatzita Jainkoak Moises'eri emon eutsan legean agertzen dira berba gogoangarri oneik eta ez dira Israel'darrentzat, beste barik, emonak, mundu guztiarentzat eta gizaldi guztietarako baliokoa dan agindua da.

Baiña, gaur batez be, beti begien aurrean euki bear dan legea da ori.

Orantsura arte iltzailleak il leikezela zan munduaren eritxia eta gaur be orretan jarraitzen dabe laterri askok, USA bera aurrerengo dala, eta Eleiza osorako zabaldu dan Katekesi-liburuak be onartzen dau laterri batzuk dauken jokabide ori, baiña baten bat ilteko eskariak agertzen diranean, Aita Santua bera izaten da lenengoa orretara epaituak izan diranai bizia parkatzeko eskatzen dauana.

Eta Biblia'tik kanpora be zabal dabil agindu ori, Koran'en eta arabiarren artean be bai, baiña zori txarrez, oraindiño be, ezkontza nasteen arrapatzen dabezana arrika ilten dabez. Basatikeri aundia da ori.

Orantxe daukagu begien aurrean Sadan Husein iltzaille aundiaren epaiketa. Zer egingo dabe? Il egingo ete dabe? Or be agertuko da munduaren eta Aita Santuaren abots zolia: Ez dozu iñor ilgo!

## GAUR BEAR-BEARREKOA

Lotsagarria da gure aldi oneitan gudarako dagon jokabide ankerra. Lotsagarria, baita, gaur ain zabal dabillen izubidea edo terrorismoa, ETA'ren arazoa eta USA'ko irailaren 11n.eguna kontuan doguzala.

Baiña izukeri ori alboratzeko bidea ez da arerioak edo terroristak iltea, ez da orretarako diran erakundeai gogorkeriz erantzutea, ez da gudea irabaztea. Zentzun geiago dauka Kataluña'ko ezkertarrak artu daben bideak.. Egia esan, ez da onartzekoa Kataluña'n eta inguruetan iñor ez ilteko eskatzea, baiña bai alkar-izketarako artu daben bidea.

Urtenbidea ez da ETA'koak iltea edo ETA azpiratzea. Alkar-izketa da bide bakarra, ez guda irabaztea.

USA'tarrak be pizka bat pentsau. erazo bear dautsegu: Zergaitik jazo zan irailaren 11n.eguneko sarraskia? USA'tarrak ondo bizi eta ardura gitxi artzen dabelako munduko gosea kentzeko, muduko beartsuai urtenbidea emoteko.

Egia da Bin Laden ez dala txiroa, baiña bai beronek artu dauala munduko txiroen arazoari okerreko erantzun bat emotea. Urtenbidea ez da Bin Laden arrapau eta espetxeratu edo iltea, ez, USA'tarrak pentsatu begie ondasunak ondo banatzeko eta munduko txirotasuna ta gosea kentzeko zer egiten daben.

Azterketa ori egiten ez daben artean, erantzun egoikia emoten ez daben artean, beti izango dira arrisku aundi baten: Mundua gosez ilten dago eta orrelan ezin

egin lei bakerik Munduko erri guztien garapena billatu bear da.

## GUDAK

Beti izan dira munduan gudak eta ugari izan be, baiña gizaldirik negargarriena XX gizaldia izan da, ludiko guda bi ikaragarriak eta beste guda asko izan dauzala, eta kizi edo atomo indarra erabili dauala.

Baiña ludiko bigarren guda amaitu zanean geiago gudarik ez egiteko eta ONU'n alkartuta arazoak bideratzeko erabagia artu zan. Erabagi ederra!

Eta zer jazo da gaur? USA'k bere bidea artu dauala, gudaren bidea, izuzaleak azpiratzeko. Guzurrez jokatura gaiñera, uste eben izkilluak agertu ez diralako. Eta jokabide okerreri eutsi dautso España'ko gobernuak, Toni Blaer agintari inglesagaz batera. Okerreko bidea! Eta ondorenak ikusten gagoz, ara joan diran errubako gudarriak ilda ikusten doguzanean. Ez da ori bidea! "Ez dozu iñor ilgo" esan ebanak, gaur "ez dozu gudarik egingo" esango leuke.

Eta guda irabazten dauanak zer egin bear dau? Zer egin bear da gaur Irak'en? Ba, asieran egin bear zana, axe bera: Alkar izketa. Eta ez goitik bera aginduak ipiñi.

Ludiko bigarren gudan artu zan erabagia bete bear zan: Ez gudarik! ONU'ren bidea.

## ESPETXERATUAK

Usa'tarrak arrapau dabez ainbat arerio, euren ustez irailaren 11n. eguneko ondamendia egin ebanak, eta an daukez Guantanamo'ko espetxe lotsagarrian, ezelako giza-eskubiderik kontuan artu barik, errudunak dirala ziur jakin barik, euren buruen alde jokatzeko abokatu barik, noizarte egongo diran jakin barik... Lotsagarria!!! Laterri gizabideratu betek artu leike olako jokabiderik? Erru guzti oneik, zalantza barik, USA'tarren gaiñera etorriko dira.

Eta jokabide orrek ez dau mundua oberatzen, txarrari indarra emoten dautso. Eta orrelan, Irak'eko gudaren ostean ohea izan bear leuken mundua, txarragoa biurtu jaku.

## ARERIOAK

Barrero Biblia'ra sartzen garala, gaur arerioak edonon eta ugari agertzen dira. Eta zer egin bear da areriokaz? Euren aurka guda egin eta azpiratu? Ez orixe! Aurka daukaguzan erakundeak zapuztu eta eurai irabazi? Ez orixe! Alkar izketa eta munduko auzitegia dira bideak, ez guda irabaztea.

"Ez dozu iñor ilgo", "ez dozu gudarik egingo".

**Olazar'tar Martin'ek**

## DONE AMAND ETA BASKOIAK

642n.urtean,euskaldunak ziran baskoiak Pirine-basoe-tan edo Auñamendi'n bizi ziran eta euren burua "saltus" edo baso aretan ondo zaintzen eben,"ager" edo landetan bizi ziranak baiño obeto.

Katigu jausten ziran baskoiak zin egitea eskatzen eutsen, baiña euren ziña ez zan fidagarria, fededunak ez ziralako, jentillak ziralako.

Dagoberto I zan frankoen erregeak Done Amand'eri agindu eutson euskaldunak kristiñau biurtzeko, orrelan fidagarri izan daitezen. Antzeko agindua emon eutson Done Eloi'ri be, bretoiak buruz.

Orduko baskoi areik augur edo azti zaleak ei ziran eta siniste okerrekoak, guzurrezko jakikoen gurtzailleak. Gudan ostera bizkorak eta adoretuak.

Done Amand euskaldunen apostoluak baskoiak Txerrenaren eskuetatik ateratea nai eban, edo eurak Barri Onaren bidea erakustea ta eurak federa ekarte.

Orretarako lanean ziarduala, entzuleen artetik eran-tzun zakar bat artu eban,erantzun artoa,berbak txantxetan artu eta Barri Onari irri egiten eutsola eta Barri Ona ez zala ezer esaten,bertsoetan antza dagoanez.

Erantzule ori une beratan Txerrenak artu eban eta bere burua jotzen,bere errua autortzen,bere gorputza zigortzen asi zan eta azkenean il egin zan

...

Done Amand urren egoan urira urreratu zan eta ango Gotzaiñak santu bateri egokion arrera egin eutson.

Lenengo eskuak garbitzeko ura eskiñi eta donea zeregin ori betetzen ebillala, agindu au emon eutson menpeko bateri: Ura batu eta ontzi bereizi baten gordetzeko eta ontzia, gero, sagrario baten.

Eleizako atean itsu bat egoten zan eskean eta oneri Gotzaiñak esan eutson: "Gizona! Zoaz eta garbitu begiak sagrarioko uragaz eta fedea ba-daukazu zure begiak osatu egingo dira.

Eta orrelantxe bete zan dana.

Armando Besga'ren Domuit Baskones liburuko 204 orrialdetik artua.

...

Edesti onek aztergai asko daukaz, baiña emen bat aztertuko dogu.

Andres Mañarikua edestilariaren ustez, jazokizun ori ezin izan leiteke jazorikoa,urte orretarako baskoiak kristiñau ziralako.

Armando'k, ostera,baietz diño,egia izan daitekela eta euskaldunak (baskoiak) ez ziralara oraindiño kristiñauak.Mañarikua'ren ustez, or agertzen diran mirariak kondaira-antza damotsoe,baiña Besga'ren erantzuna da mirariak edesten dabezan liburuak onartzen ez ba'doguz, sasoi aretako kronika guztiak alboratu bearko gendukezala.

Dana dala,basoetako baskoi-taldeak jentillak ba'ziran be, Narbona'tik ur bizi ziran euskaldunak euren gotzai-

ñak,eleizak eta fedea eukezan bigarren gizaldiaren azke-na ezker, Latiegi'ren liburu sakon eta zeatzetan ikusi daiteken lez.

OLAZAR' tar Martin'ek

### NASTEAN

#### OPPILA BURUSAGIAREN ILLOBIA

VII gizaldiaren azkenerantza, bakea egoan euskaldu-nen eta bizigoten artean, baiña aldi orretako jazokizun arrigarri batek ziurtatzen dausku gudaldi bat izan zala.

Kordoba'ko Villafranka errian, illarri baten bertsoz idatzita dagoan illarri-idazki bat agertu da.Ona emen euskeratuta:

"Zulo biribildudun aitz oneik babesten dabez Oppi-la'ren gorpuzkiñak. Ospetsua zan, jaiozaz, eta itxuraz. Ondasunez aberatsa eta gorputzeko indarrez ezagutua.

Izkilluak eroateko agindua emon eutsoen eta bakzeis (euskaldunak)'en aurka guda egitera bialdu eben. Gudalekuan berta il zan bere lagunak be lagundu ezin izan eutsoenean. Zauri eriozgarriak eukazala, bere menpekoak arin eta arduraz artu eben eta etxera eroan, bizia galduta, eta bere jopuak illobiratu eben.Emaztea seme-alabakaz batera negarrez dago. Ogeita bederatzi urtean bizi izan zan. Baskoiak eriotz-zigorra ezarri eutsoen irailaren iduen aurreko egunean. Gogoan izan au jazo zala seireun eta larogeigarren aldian.Illobiratu egin eben eta eta argitik atsedena artzen dau urrilleko iduak baiño sei egun lenago "

Idazki au J.Vives'ek dakar "Inscripciones cristianas de la España romana y visigoda" liburuan. 287 zenba-kiagaz.

Oppila ori zan ba,bisigot ospetsu bat bere gudariakaz etxetik illebeteko bidean egoana eta 642n.urteko iraila-ren 12n.egunean il zana.Euskaldunak il eben eta urrila-ren 10n.egunean obiratu gudarako euren buruzagi izana.

Bake-aldi baten jazo zan ori, baiña bizigoten eta eus-kaldunen arteko mugan beti egoan urduritasuna eta eus-kaldunak bein eta barriro erasoten eutsen bisigoten gotor-lekuai.

OLAZAR' tar Martin'ek

### Urestarazu Landazabal'tar Miren Terese

(Goyan bego)

Gastelz'en il zan albo 96 urte zituala, Elizakoak eta Aita Donearen onepena artu ondoren.

Andoni "Umandiri" (1) bere nebat, Karmele (1) goimaitasuna'ren Karmeldara, Arrieta'tar Dion, lengusuaik eta beste azideak bere animaren alde otai bat eskatzen diaute, ta gorputzaren eortzera Santa Isabel'en, zapatua 10, 10 orduan egingo danera, ta Iletara Santa Maria de los Angeles'en elizan, zapatua 10, 6,30 orduan izango danera erdu zaitezela.

Guzlei aurteik eta biotzez, eskerik asko.

Gastelz'en 2004'ko Urtañilla

Zuzenbidea: Saritxo Jakituna, 23

(P.F. Lazurka, S.A. Tfn: 945 222 004. Vitor-Gasteiz)

# ISLAM'DARREN MARGOLARITZA



Islandarrak ormak margotzen zaleak dira (Jodanian 'n)

Arabiarrak, Maoma'k itxartu ebazenean, jakintza barria sortu eben, gaur arte indar aundia daukana, baiña margolaritzan egin ete eben lanik?

Asiera baten ezetz dirudi, irudiak egitea debekatuta eukelako, Juda'tarren antzera, baiña arlo onetan ere barriak aurkitu ebezan, benetan miragarriak.

XIII gizaldian buztin-lanak apaintzen asi ziran eta trebeak izatera eldu be bai, batez be (guda dala-ta) gaur ospetsu dogun Bagdad urian.

Urrengo eunak (tapizak) eta alfonbrak edo ioñazpi-koak egiten trebetu ziran naizta geroko gizaldietan askoz trebeagoak izango diran.

X eta XI gizaldietan asi ziran leiarra margotzen eta sarkaldean ontzat artzen ziran leiar orreik saltzera etortzen ziran.

Liturjirako argi-mutilak apaintzen onak ziran.

Baiña margolaritza ez da eurentzat eder-lana iñoiz be, apaingarri bat baiño ez da. Ormak, sabaiak, beiak eta abar apaintzeko era bat da eurentzat persiarrentzat lez.

Beste lan-arlo bat esku-idazkiak apaintzea da, miniaturalana.

Eta mosaikuak be egiten dabez, ederrak gaiñera batzutan, jeometri-girokoak eta abstraktoak be bai.

Orain dana da asiera lez, gero bide oneik zabalago ta ederrago agertuko dira.

Euren artean leiñu bat seljuzidak dira, XII gizaldian Asia'ra zabalduak eta oso trebeak eun margodunak edo tapizak egiten, buztin-lanak apaintzen be bai, baiña euren lan berezia eun margoduna da: lenengo txabolak egiteko gertatzen dabez olako eun margotsuak, gero jauretxeetan be agertzen dira, eta onenak Anatolia'koak dira. Zelako lanak! Metro lautu baten barruan 80.000 korapillo eukiten dabez, gai lez artulea artuta... Sarritan jeometri-lanak dira (laukiak, ronboak eta sei-zokoak) eta margoak be ez dira errezenak, geienetan urdiña, gorria, zuria ta marroia.

Jateko tresnak eta argi-ontzi edo farolak be apaintzen dabez, batez be Bagdad'eko eskolakoak.

Aurrerapen aundiak egiten dabez liburuak apaintzeko miniaturak egiten eta irudiak oso realistikak dira, esaterako Kallila e Dimna ipuin liburuetan dagozanak. Eta oneik egiteko ereduak kristiñauen artean aurkitu ebezan Siria'n.

XIV gizaldian txiñoen ikutua dauke: irudimena bizi eta margoak biziago.

XV-XVI gizaldietan liburuak apaintzen jarraitzen dabe, onenak Bagdad'en era barri baten.

Aldi onetako lanai dragoiak esaten jake eta ronbo-artean piztiak agertzen dira eta margoak gorria ta urdiña.

XVI-XVII gizaldietan eunak doaz aurrera, edontziak margoz apaintzen dabez piztiakaz eta eizaketa ugariakaz. Aurreko gizaldikoak baiño obeak dira.

Mamelukoak esaten jake Ejipto'n jarri ziranai eta emen be argi-mutillak apaintzen, leiar eta esmalteak margotuta, iñoz urrez apaintzen eta tarazea-lana egiten jarraitzen dabe.



Mosaikoak be egiten dabez (Jodania'n 744 urtean)

Txiña'tarren antza daukan buztin-lana dago ugari.

Emengo eunak izena "damaskoak" dauke eta margotsuak dira: urdiña, gorria, orlegia... eta jeometri-lanak eta landarak agertzen dira.

Turkiarrak be islan'en barruan daukaguz eta buztin-lana ta apaingarriak egiten dabez, landarakaz eta zoi-uridin edo azulejoakaz. Onei be damaskoak esaten jake, oker esanda.

Otomanoak be orrein artean dagoz eta onak dira eun margotuak egiten, lenengo jeometriz apainduta baiña geroago (XVI) otomanoen eunak ospetsu biurtu ziran eta beste lan bat be asko zabaldu zan eun-antzera: otoitza egiteko alfonbrak, ederrak eta asko.

Otomanoen liburu-apainketa edo miniatura lana oso ezaguna da, oso biziak dira.

**Olazar'tar Martin'ek**

# SALMOAK

*Salmo berriak kantatzeko Doimua!*

(1) *San Juan*

Jaun-goi-ko Ai-ta mai-te zai-  
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lla Jain-ko  
Se-me-a, mai-te zai-tu-gu guzti-  
on Sal-ba-tzai-lla - a Jain Es-pi-ri-tu San-tu-a  
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lla - a gu-re  
a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za  
sor-tzen lan-gi-lla - a

## 36N. SALMOA: ZORTZI ZORIONTASUNAK

1

Jaun da Maixuak esana degu zorionekoak dirala, biotzez beartsuak diranak zerua berena dala. zoriontasun au Ama Birjiñak bai ondo bete zuala, aberastasun Jaunak egiñak deseo etzituala.

2

Bigarrena da: Zorionekoak izango dira otxanak, berak izango dira lurraren jabe izango diranak. Ama Birjiña ain goxua zan, goxuak zitun es-anak; ezin emeratu zeiken eran zitun gauzak eramank.

3

Irugarrena: Zorionekoak negar egiten dutenak, zergatik berak izango diran poz aundiak dituenak. Ama Birjiñan begiak ziran negar geiena zuenak, ordaindu nairik Jaungoikoari ematen dizkien penak.

4

Laugarrena da: Zorionekoak zuzenaren gosetuak, berak izango diradelako graziakin asetuak. Ama Birjiñak supritu zitun gose aundienua-kuak, Jaunak ordainez ematen zizkan grazi goxuenekuak.

5

Bostgarrena da: Zorionekoak errukitsuak diranak iritxiko dute errukia; errukior diran danak Ama Birjiñak errukiaren Ama dala ditu danak beti artzen; ta bere laguntza apal-eskatzen duanak.

6

Seigarrena da: Zorionekoak biotz garbia duenak, berak ikusiko due Jauna baita zeruan daudenak. Ama Birjiña garbi s-ortuak eguzkirik argienak bere biotzan sentimentua ziran beti Jaunarenak.

7

Zazpigarrena: Zorionekoak pakearen emailleak, berak izango diradelako Jaungoikoaren semeak. Ama Birjiñai jakinduria eman zion Egilleak, eta pakea etzuan galdu, emana Salbatzailleak.

8

Zortzigarrena: Zorionekoak zuzenak txartzat artuak berena dute zeruetako erreinua. Ta santuak. Ama Birjiñak ezin geiago ziran supritutakuak, ilko zalako Salbatzaillea joririk oin da aundienua.

## 37N. SALMOA: JOSE SANTUA GAIXOTU ZAN

1

Denbora juan zan aurrera eta Jaunak kunplitu zituan, emezortzi urte eta s-arri otoitz egiten zijuan. Aitak barkatu zeigun danori

ausper erregutzen zuan,  
eta izarti odolezkua  
ixurtzen zuan orduan,

2

Ama Birjiñak ogeita amairu  
urte kunplitu zituan,  
ta gelditu zan sasoi berean,  
ez zartutzeko munduan.  
Jose merituak irabazteko  
miñez jarri zan orduan,  
Ama Maria ta Seme Jesus  
laguntzen zeuzkan onduan.

3

Ematen zizkan jan goxuenak  
Birjiñak Jose onari,  
belauniko jartzen zan andrea  
serbitzeko senarrari.  
Azkeneko iru urteetan  
miñ aundiak zeuzkanari,  
besotik artzen zion andreak  
jeikitzeke gizonari.

4

Jesus Jainkoak arotz-lanean  
nekatu zitun es-kuak,  
baiñan zerua irikitzeke  
zeuzkan lan gogorraguak.  
Arotz-laneko erremientakin  
ebakitzeke bankuak,  
beartsuari eman zizkien  
izateko us-atuak.

5

Jose santua miñen artean  
izaten zan alaitua,  
Jesusek eta Ama Birjiñak  
zeukaten ondo zaitua.  
Eldu zan zortzigarren urtea  
bizi zala gaixotua,  
bazetorrela azken ordua  
izan zan ezagutua.

6

Ama Birjiñak eskatu zion  
Jesus bere Semeari:  
“Lagun eiozu eriotzean  
Jose zure maiteari.  
Zure betiko errukiakin  
poztu eiozu berari,  
bere lan izardizkoarekin  
jana eman digunari.

7

Erantzun zion Salbatzailleak  
“Ama zure eskariak  
gustoko ditut, ta badakizkit  
Joseren lan ugariak.  
Lagunduko diot ordu ortan  
Goiko du nere erriak.  
Jarriko ditut arriturikan  
ainguru abeslariak.

8

Jose s-antua il zan bezperan  
maitetasunez sututa,  
ogei ta lau orduan egin zan  
mirariz Jainkoz batuta.  
Ezagutu zitun misteriok  
Jaungoikoak agertuta,  
es-an zeuela Linbokoari  
“Laister gera salbatuta”.

### 38N. SALMOA: JOSE SANTUAREN ERIOTZA

1

Birjiñak belauniko jarrita  
eskatu bedeinkatzeko,  
Josek ain umil emana zion  
andreari poztutzeko.  
Birjiñak esan Joseri auxe  
Linbokoai esateko:  
bere partetik guraso santu  
aieri saludatzeko.

2

Jose santuak eskatu zion  
Birjiñari barkatzeko,  
gizaseme aula izan zala  
bera ondo serbitzeko.  
Bazetorkion azken orduan  
bere alde eskatzeko,  
eta al zuan eran berari  
eriotzan laguntzeko.

3

Jose s-antuak eskerrak emon  
zizkan seme s-antuari,  
bizitzan beti ta gaixotzean  
lagun egin zion Ari.  
Belaunikatzen asi zan Jose  
adoratzeko Jaunari,  
ezin zuan da Jesusek artu  
zion besotan berari.

4

Salbatzailleak Jose s-antua  
zeukan besotan artuta,  
es-ana zion: “Nere Jainkoa,  
aula naiz ni, Zuk s-ortuta  
Jauna, nai nuke Zuk ni jartzea  
betiko bedeinkatuta;  
merezi gabe Amaren senar  
naukazu aukeratuta”.

5

Salbatzailleak bedeinkatuta  
es-ana zion onela:  
“Aita nerea, des-kantsa zaitetz  
graziz pakean zaudela.  
Nere profetak eta santuak  
Linbon zure zai daudela,  
Zuk eman berri poztgarri auk:  
Eroslea datorrela”.

6

Jose, itz auk entzun ondoren,  
il zan Jaunaren besuan;  
Jesus Jainkoak aita Joseren  
begiak itxi zituan.  
Berekin zeuden aingeru aiek  
kantatu zuen orduan;  
bere anima Linbora juan zan,  
an danak poztu zituan.

7

Jose santuan gorputza illa  
gelditu zan edertuta,  
usai gozo bat urrutiraiño  
juateraiño zabaldua.  
Birjiñak jantzi zuan gorputza  
Jesus Jaunak lagunduta;  
ezagun asko gelditu ziran  
ikustean arrituta.

8

Jose santua il zanean zan  
irurogei urtekua,  
ogeita amairu urte zeuzkala  
zala ezkonduakua,  
eta ogeita zazpi urtean  
andreakin bizitua.  
Ama berrogei ta bat urtekin  
zan alargun gelditua.

**Aldalur'tar Justiñe  
(Lekame Klaratarra)  
Gasteiz'en**

# VOLTAIRE TA EUSKALDUNAK

“Babilonia’ko printze-emea” izan zan Voltaire’k idatzi eban elebarri laburretari bat, XVIII gizaldian; eta Troia’ko guda agertzen da elebarri orretan.

Or Voltaire’k euskaldunak aitatzen dauz eta orregaitik dakargu orain gomutaki au.

Ona emen lenengo esaldia: “Aspertu-eziñak, ausartak eta barre-kariak” dirala baskoiak diño. Auñamendi’ko txaboletan artuta eroaten ebezan gudariak beti izaten ziran lenengoak guda guztietan. Eurak Auñamendi’aren alboetan bizi ziran eta antxe dantzatzen eban tanborillaren soñuari jarraituz, euren batzar aundietako epai-lariak eta euren mendietako santutegietan egozan abadeak buru zirala.

Ara beste leku baten zer diñoan: Amazan Auñamendia’reñ albo-ara eldu zanean, epaikariak eta abade druidak dantzea beartu eban, tanborillaren doiñuari jarraituz, eta aurrera joateko Auñamendi itzi eban ezkerre, ez eban izan pozbiderik, ez bakerik.

Eta beste baten: Betika’ko erregeak bere ikertzaileari auxe esan eutsen: “Nik emon neuskizuez bi milla gizon (gudari), neurritsuak eta adoretuak eta beste orrenbeste zerrendatu zeinkeez Auñamendiaren alboan dantzatzen dabenen artetik. Onei euskaldunak edo baskoiak deritxee. Bialdu egizue ara zuen gudalaria adar-bakarraren gainean diamante batzukaz eta baskoi guztiak gertu egongo dira aitaren etxea izteko eta zuen zerbitzaille izateko.

Aspertu eziñak, ausartak eta barre eragilleak dira eta eurakaz pozik geratuko zaree, Beste leku baten diño: “Laster eldu zan euskaldunen talde alaia ta artoa, tanborillari jarraituz dantzaka, ta gertu egoan ordurako Betika’koen beste talde artoa ta serioa”.

Eta beste baten: “Bi milla españatarrak. Amazan’en gidaritzapean joiazanak, esan eban ez ebela bear Etiopia’ko erregearen laguntzarik Babilonia’reñ aurka joateko. Euskaldunak esan eban ori baiño gauza askoz gaxagoak egin ebezala eta eurak zirala naikoa ekinaldi orretarako eta ejiptotarrak, inditarrak eta eszitak azpiratze-ko eta ez ebela nai españatarrakaz joaterik, oneik gudarostearn atzekoaldian (erretaguardian) geratzen ez ba’ziran”.

Eta beste azkenengo toki baten au diñoa Voltaire’k: “Ekiñaldi arrigarri onek ez ete dira agertzen ejiptoarren edestien liburuetan? Españatarren, euskaldunen eta onein adarbakarren izena eta iru

erregen aurka lortutako garaipenak eun turutak aldarrikatu dabez”.

Voltaire’reñ irudimen aundia agertzen da or eta baskoiak sartzen dauz guda orretara, baiña or argi agertzen da zelakoa zan Voltaire’k eukan euskaldunai buruzko eritxia, antxiñako edesti-idazleakandik artuta. Ez dogu aitzu bear Birjilio’k berak be “Eneida” liburuetan ba-diñola, “kantabroak” sartu zirala Anibal’en aurka guda egiteko zerrendetan.

## Irlanda’n euskaldunak?

Aberri guztiak daukez kondairak euren sorreran. Irlanda’k be bai.

Lurralde aretan izan ziran lenengo biztanleak Iberia’tik joanak zirala diño antxiñako kondairak.

Pedro Lonbardo goi-gotzaiñak diño Ibero Galateo’reñ semea izan zala lenengoen arteko biztanlea. Galateo’k Galizia eskuratu eban lenengo eta Ibero ta Herimon bere seme biak bialdu ebazan Irlanda’ra eta oneikaz batera joan ei ziran euskaldunak be, eta oneik an itzi ebezan euren izkuntzaren astarnak.

Florian de Ocampo ta Garibai edesti-idazleak diño “irlandar-rrak arro dagozala euren aurretikoak bizkaiatarrak izan ziralako”. Bardin diño beste edestilari batzuk be, esaterako Pedro Lombardo’k berak eta Rikardo Canbeo’k eta Tomas Walsinghamo’k.

Aberri aren izena bera be euskaldunak eroana dala dirudi: “Iria” edo uria erriaren antzekoa da eta “landa” lurraldea. “Landa” au gero Europa osora zabaldu da, bear ba’da keltak eroanda: Islandia, Jutlandia, Groelandia, Finlandia, Doitxland... Oso egokia zan Irlanda’reñtaz izen au zelai orlegia zalako, landea.

Irlandarrek euren izenaren aurrean “onel” edo “odonel” ipinten dabe eta ori euskerazko “onen”etik etorria dala diño.

Bein baten Irlanda’ko iru gotzain etorri ziran Lekeitio’ra Trento’ko Batzar Nagusia amaitu ebenean eta arrituta geratu ziran Lekeitio’ko izkuntzak, euskereak, eurenagaz eukan antza ikusita.

Irlandarrek euren estualdietan etorten dira Euskalerrira eta orregaitik dagoz gure artean angoak diran abizen asko.

**Olazar’tar Martin’ek**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:  
EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk’ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**



# EUSKERAZALEAK 2003: URTEKO EKINTZAK

## Samintasuna

Urteko ekintzen laburpen au egiten asteko,neure barruko samintasun aundi bat agertu bear dautzuet:Laburpen au egin bear eban Zubiri'tar Iñaki gure lendakaria il egin jaku eta emen itzi gaitu, umezurtz lez, samintasun aundiagaz. Jaungoiko Aita onak bere betiko etxean artu dauala eta sari aundia emon dautsola uste dogu,bere lanak be ugariak eta onak izan dira-ta.

Naiz errian,naiz politika-alderdian naiz euskal jakintzak naiz eleizan beti egon da gertu lan egiteko eta bitarteetan oso irakur-garriak diran elebarriak eta olerkiak idatzi dauskuz.

...

Neuri dagokit ba,Euskerazaleak Alkartean bere ordeko izan nazan lez,urteko lanen laburpena batzar nagusi onetan egitea.

...

## Ikastaroa

Euskerea irakastea izan da Euskerazaleak Alkartean asieratik eta urtero egin dauan lan bat.Aurten 35n.ikastaroa izan da eta 22 izan dira ikasleak

Ikasleen kopurua urrituz doa eta uste dot zio bi dagozela orretarako:Ikastaro asko eta toki askotan egiten diralako eta euskalzarlerik sutsuenak euren ikasketak amaitu dabezelako.

Dana dala,oraingoz gure lan berezi eta apal au izteko usterik ez daukagu.

...

## Egutegia

Aurten be,beti lez,ba-dira 25 bat urte ekintza au beteten dogu-la,eguneroko orritxua dakarren egutegia argitaratu dogu,bbk'ren laguntzaz.

Egutegi au pozik artzen dabe Bizkai'ko euskaldunak eta ainbat etxetan euskerea ikasteko eta irakasteko bide bat izaten da orritxu au irakurtea.

Gipuzkoa'ra ta Araba'ra be zabaltzen dira aleren batzuk.

Urrengo urteetan be argitaratu dogu.

...

## Ipuin-sariketa

Bilbao'ko udalak sariak ordaintzen dauzala,aurten be egin dogu ipuin-sariketa.Ipuin onak eta sarigarriak etorri dira,maikoak diñoskuenez.

Maikoak ipuiñak aztertu dabez eta bost saridunak oneik dira:

1.º Saria: Asier Legarreta Legarreta

2n. Saria: Joxemari Murua

3n. Saria: Anastasio Arrinda Albisu

4n. Saria: Balendin Aurre Apraiz

5n. Saria: Juan Sebastian Abasolo Isasi

...

## Zer aldizkaria

Bizkaitarrak euren euskeran ez daukela irakurteko aldizkariarik jakiñik,1977n.urtean,Agur aldizkaria argitaratzea amaitu zan urtean,asi giñan apal-apal gure ZER argitaratzen eta ordurik ona illero agertu da aldizkaria,irakurleak eta idazleak bizkaieraren barruan ugaritzeko.

Eta orretan jarraitu dogu 26n.urte onetan

Asko dira gure ZER asieratik azkenera oso-osorik irakurten dabenak eta askoz geiago dana ikusi eta idaz-lanik onenak aukuratu eta irakurten dabezenak.Eta asko poztuten gaitu ain baztertua dan Bizkai'ko euskerearen alde egiten dogun lan onek.

Orretarako arpidedunak dira lenengo laguntza eta laguntza ona,baita,Bizkai'ko Foru-Aldundiak,Gotzon Lobera'ren bidez emoten dauskun laguntza.

Bilbao'ko arpidetza-sariak eskuratzen doguz,etxerik etxe eskuratzaillea joaten dalako.Guztai eskerrak euren laguntza onagaitik.

Eta errietan olako aukerarik ez daukagun lez,arren eskatzen dogu ordaintzen ez dabenak,asko dira,bbk'ra joan eta ZER'en agertzen dan txarteltxua eroan eta ordaindu dagiela.Ez dabe ezer idatzi bear,euren izena eta erria an emon bai,gure kudeatzaille dogun Karnele'k kontuak zeatz eroan al izan dagizan.

...

## Euskal-astea

Urte guztietan lez,aurten be egin dogu Euskal Astea

Lenengo egunean Asier Legarreta gure gazteak egin eban itzaldia bertso papelai buruz.Ederto egin eban berba Asier'ek

Bigarrenean Paul Atutxa izan zan izlaria eta gaia Euskelerriarren askatasuna edestian.Baiña gaia luzea zalako beste egun bat be eskiñi geuntson.

Irugarrenean neuk egin neban berba abizenai buruz.Abizenen gai au jakingarria izaten da etxea ta abizena ainbestean maite doguzan euskaldunontzat.

Laugarrenean Latxaga giputza etorri jakun eta ederto azaldu eban berak zabaldu dauan Euskerearen aldeko agiri nagusia edo Manifestoa.

Eta bosgarrenean barriro berba egin eban Paul Atutxa'k eta arrigarriro agertu euskun Arana'tar Sabin asita abertzaleak askatasunaren alde egin daben lan arrigarria,Ibarretxe lendakariaren esondapena asalduz amaitzeko.

...

## Illeroko batzarra

Euskerazaleak Alkartean Batzordea,Paul Atutxa idazkariak batzar agiria egiten dauala,illero batzen da.

Beti izaten dira arazo aztergarriak,batez be diru-laguntza eskuratzeko Karnele'k egin bear dauan lan aundia eta izenpetzeak egiteko eta eskutitzak irakurri eta erantzuna emoteko eta ekonomi-arloko beste arazo asko bideratzeko.

Urtero egiten dogu,gaiñera,gaur egiten gagozan batzar au eta Batzorde au osotu egin bear dogu,Zubiri'tar Iñaki'ren lekua beteteko. Gaur egin dogu ori eta oineik dira Batzordekideak:

**Lendakaria:** Olazar eta Uribe'tar Martin;

**Lendakari-ordea:** Barroeta eta Amorrortu'tar Klaudio;

**Kudeatzaillea:** Fernandez eta Ruiz de Eskibel'tar Karnele;

**Idazkaria:** Atutxa ta Agirre'tar Paul;

**Maikoak:** Egurrola'tar Iñaki, Solozabal'dar Paulin,

Malaxetxebarria'tar Jon, Ormaetxea'tar Emilio.

...

## Eskerrak

Amaitzeko eskerrak emon bear dautseguz Euskerazaleak Alkartea'ren laguntzaille guztiai,bai irakurleai,bai idazleai,bai iragarkiak eskintzen dauskuzenai,bai arpidedunai,baiña era bereizi baten gogoratu bear doguz laguntzaille lez,Bizkai'ko Foru Aldundia,Bilbao'ko Udal-Batza eta bbk eta gaur batez be bere azken-naian gutzat dirutza bat itzi dauskun emakume goragarria.Eskerrak asko!

**Olazar'tar Martin'ek**

# ABERTZALETASUN GARBI-GARBI BAT

Markina, 2003, lotazillak 11

Olazar'tar Martin

Agur jauna, agur t'erdí:

Bagilia'n egin neutsun idazki apaltxua irakurriko zenduala, uste oso-osea neukan, baiña ZER aldizkarian agertuko zanik iñundik iñora be ez: Zer gertatu jatan? Lenengo taupada gogor bat emon eustan biotzak; gero matraillak gorritu lotsa pizka bategaz; baiña bi edo iru bidar irakurri ondoren, esan neban: Ze araxo! Aurrera beti zeure burua ezereztzat euki barik! Nire amak irakurri aal baleu esango leuke: Nire alaba Miren Kasilde dabil arto bero usaiña dauala arrokeriz beterik benetan.

Zeuk egin dozunak neu be poztu eta adoretu egin nau. Eskerrik asko!

Emen nago barrero be zeozer idatzi eta emen daukadazan gauza batzuk bialtzeko.

Hilario Aretxabaleta'k, emazteari egindako azken agurra: Zazpi seme-alaba geratu ziran umezurtz. Beste orri bi Deia egunkarian agertutakoak; bata beste baiño sakonagoak; Olako gauzak erakutsi edo esan ezkeror ifi bafe mingafi bat egin eta amaitzen dabe gure abertzale "Egiko" gazteak. Tamalgarria. Beste ofia 1.979'ko urtian Batzolkiaeren zabalkunde egunerako beste efietatik etofi

ziranei "Ondo etofia" emoteko. Azkenez 1.932'ko epaillak 27 Bilbo'n egin zan aaztu-ezindako Abefi-eguna ofiagaz batera doia. Argazkia neure guraso maitiakín: Amasei urte daukadaz; ikuñin maitiaren arduradun izendatu ninduen: Areik izan ziran egun maitekorrak; gero agertu zan gizon zital bat eta beragaz ainbat urtetako zapalkundea: baiña bafukoa iñok ezin kendu eta gizon ori "lo-zoñoak" eruan ebanian "aupa" Miren Kasilde esan eta nun Batzoki baten zabalkundea; au doia, ikurriña zorroan artuta -sarritan bakarrik- barruko gañak eraginda neure eginkizunak Abefi maitiaren alde betetzera: orain ezer be ez baña egindakoan pozak bizi-bizi nauke.

Gabon jaiak uf-urrean doguz; osasun eta baketsu igaro edo ospatu.

2004'ko urteak negar-efi onetan bear diran gauza on guztiakin eldu daitela ate-joka zeu Martin eta ZER aldizkariaren langilleen etxe guxtietan; biotz-biotzez opa dautsue.

**Aginaga'tar Miren Kasilde'k**

ZER'en oarra: Eskerrik asko, Miren Kasilde! Ondo idazten dozu. Zulako abertzaletasun garbia bear dogu euskaldunok. Zure ondoan gaukazuz beti.

## 1979,go Gañagar, ilak 1

Neure eñitar eta beste efietatik etofi zareen lagun maite oi Markiña'ko "JEL" alderdiko emakume eta neure aldetik, agur bero bat eta ondo etofiak gure artera.

Joan diran urte luzeetan majiñabat atzekabe mingotx eta estutasun lafi igaro biar izan doguz, baña bafuko gañak eraginda ekin eta ekin jardun dogu eta ona emen saria. Eta zer sari obeagorik Batzokia'ren zabalkundia baño?

Batzokia aberkideen bil-tokia da, baña asmo zuzenez dabizantzat be atek zabalik egongo dira.

"Abertzaleak gara" paña-paña entzuten dogu; itz edefa bear dan lez jokatu ezkeror. Alkartu gaitezán danok eta gogoaz eta zuzentasunez ekin lanari geure asmoa lortu arte. Lenengo Markiña geure abefi txiki au garbitu, txukunde arte; gero Euzkadi geure abefi bakaña azkazu arte.

**GORA EUZKADI AZKATUTA**

Orain ikufiña jasoko dogu; ofetarako emen dago "ITXAS ALDEKO" kapitxana izan zan Etxaniz tar Julian. Txalo beroak gizon adoretzu eta zintzo oneri.



**CARCEL DE LARRINAGA**

21 - VII - 37

**Mi cariñosísima esposa:**

**Dentro de breves momentos voy a dar cuenta de toda mi vida a Dios nuestro Señor, y rogado por mi alma y no guardar rencor para nadie, y si perdonar a todos, y todos los hijos que vayan a oír misa y comulgar para que mi estancia en el Purgatorio sea corta, y que todos ellos sean buenos y sigan aprendiendo la doctrina de Cristo.**

**Besos por última vez a los niños y te espero en la eternidad.**

**Rogad por mi alma.**

*Hilario Aretxabaleta*

**"DOY FE"**



S/Aranzazu

Nº 2



*Miren Kasilde ikurriñagaz.*

### NEURE ABIZENAK

#### AITA

Aginaga  
Ugarteburu  
Unamuno  
Garate  
Espilla  
Gisasola  
Gisasola  
Zelaieta

#### AMA

Barinagañementeria  
Arakistain  
Laka  
Urkidi  
Lafea  
Bastefetxea  
Bafenetxea  
Ondartza

## OBETO IZATEKOTAN

Afrika'ko errixka baten jaio nintzan dirala ogeta bi urte. Errixka polita bezain umoretsua zan eta jentea gauza gitxi-gaz bizi arren, alaia.

Gure etxeko ormak basa ta buztñagaz egiñak ziran eta teillatua palma-ondotik artutako adar leortuz eraiki gendun.

Nire sendia bizi zan lurraldea ez zan euritsua, baiña noizean bein egiten eban euri-zaparrada bat edo beste.

Amar urte bete nebazanean leorte gogor batek artu ginduzan bere magalean eta eguntara ezkerro ez dau barriro euririk egin.

Urte atantxe asi zan kalbarioa gure errixkan, andik ama-bost kilometrora egoan ur-pozu batera joan bear giñan ur-billa eta azken zanak ez eban jasoten ur-tanta bat be.

Lurra ez zan leen baizen emonkorra eta gosetearen age-rraldia ezin bestekoa gendun. Ume txiki asko asi ziran ilten eta euren amen begiak asi ziran tristuraz lausotzen, negarra aurpegian beera joiala, tristura nagusitu zan gure errixkan.

...

Gure naigabeak ez ziran or amaitu. Alboko errialdearekin gudan asi giñan. "Eriotza" nagusitu zan an-or emen eta erbesteratuen bide luzeari asiera emon eutsoen.

Momentu baten neure buruaru galdetzen neutsan: Zer-gaitik urten bear dausku danak txarto? Erantzuna aurkitzea ez da bat be erraza.

Batzuk uste eban jainkoak gure aurka jarri zirala, beste batzuk uste eban espiritu txarrak nagusitu zirala mundu guztiaren gaiñean.

Nik neuk uste neban zoritxar ori etorri bearrekoa zala, alan bearrez, eta etorri zan moduan joango zala. Egia esan, ori uste eban bakarra nintzan, baiña tira, zer egingo jako ba... bizi-moduak aurrera darrai eta ezin dogu beti negarrez jardun.

Nire adiña euken asko eta asko asi ziran errixkatik alde egiten. Beste erri aundiago batzutara joiazan an obeto izateko asmoz.

...

Neuk be burua bero neukan erbesteratzeko ideirregaz, baiña gurasoak eta arreba txikiak itzalezko penea emoten eusten, lurralde illotz aretan bakar-bakarririk itzi bear nebalako. Izango ete ziran gai bizimoduari aurre egiteko? Arreba oso txikia zan eta gurasoak ez egozan euren one-nean.

Lagunak ekin eta ekin ebilkidazan eurakaz joateko esanez. Orrek nire barruan ezin-egon bat sortarazi eban eta ez nekian zer egin. Bildur nintzan.

"Leen mundura joan bear dogu, irugarren mundua atzean itzita", esaten eusten. Eta nik ez nekian ainbeste mundu egoanik. Leena eta irugarrena izan ezkerro, bigarren bat be egon bear zan, beraz iru mundu ba-egozan gitxienez.

A bai kilika larria! Urdailak kirri ta korro erantzuten eustan, baiña txarrena au zan: Nik ez nebala iñor ezagutzen leenengo mundu orretan, beintzat aolkua emoteko iñor.

Guda asi-aurretik ba-egozan lenengo mundutik etorritako lagunak, baiña orain guztiak alde egin dabe.

Bart gurasoakin izan neban batzarra neukaz asmoen barria emoteko eta uste neban baiño obeto artu eban: Ama asi zan negar-zotinka, baiña nire ustea ta asmoa ori ba'zan, berak onartzen ebala adierazi eustan; aitak nai nebana egiteko esan eban eta arreba txikiak ezer ez eban esan, ba-ekian jakin be nire egitasmoen barria. Bere biotz nimiñoan ara ta ona ebillen, barriro ikusiko ete nauanaren zalantza. Bere erantzuna mutua izan zan eta nik baiezko lez artu neban.

...

Beste arazo bat aurkeztu zan, ordura arte kontuan izan ez genduana. Dirua bear ei genduan mundu barrira joan aal izateko eta nondik asi dirua batzen? Dirua ez zan azten zugazetan ezta orri-azpitan.

Lagun-taldeko "buru-argiak" bere usteak aurkeztu euskuzan. Leenengo pausua bidaia zenbat aterako jakun jakitea zan eta gero asi merezi dauan ala ez auznartzen.

Bi illebe igaro ziran gu eroateko gertu egozanak aurkitu arte. Ordaindu-bearrekoa milla dolarrekoa zan. Nondik aterako genduzan guk milla dólar?

Iparraldean ba-egozan meategi batzuk eta urtebete lan gogor egin ezkerro, lortu geinkela diru-kopuru ori, esan euskuen.

...

Uste baiño luzeagoa zan ametsa burutzea, baiña egozgorrak giña eta lanean asi giñan jo ta ke.

Urtea luze egin jakun eta leen argal egon ba'giñan, orain ez giñan ikusi be egiten.

Itzuli giñan gure gidariengana, ordaindu gendun esandakoa eta ez jakun besterik gelditzen itxarotea baiño.

Illabete barru zan abiatzen giñan egun aundia. Ganera, nik amets egiten neban itxasontzi dotore baten joango giñala leenengo mundura.

Mundu barri onetan zuriak zirala geienak esan euskuen meategian lagun egin genduzan batzuk. Baiña orrek ez ginduzan larregi kezkatzen. Elburua, nirea beñik bein, iru edo lau urte lanean egin itxaroten geunkan munduan eta barriro nire errixkara itzultzea zan, sendia bere bear-izanetatik aterateko. Etxe barri bat egin, nekezal-tresnak erosi eta arrebeari ikasketak ordaintzea ziran nire egitasmoetariko batzuk

...

Eldu zan egun aundia. An ez egoan nik uste neban otxa-sontzirik, egur ol batzukaz egindako gauza bat zan.

## IPUIN-SARIKETA

Aurrera begiratzan neban eta ama ez dot ainbeste ur ikusi neure bizitza guztian.

Ez nekian uger egiten baiña esan eusten uretara jausi ezkerro ankeaz ikututen dala beea, beraz ez nintzan iñondik iñora itoko. Orrek nasaitu ninduan pitin bat.

Sartu giñan tramankulu aren magalera, jesarlekuak be ez ziran bape erosoak, non oratu be ez egoan dindili-danbala asi ezkerro...

Geroago ta jente geiago etorren eta ni neure baitan kontuak ateratzen asi nintzan: Oneik guztiak ez dira gugaz etorriko! Guzti onein pisuari eutsi al izango ete dautso tramankulu onek?

A ze diru-pilloa irabaziko eban, emen goazanetariko bakotxak milla dólar ordaindu-ostean!

...

Emakume asko ikusten ziran eta geienak aurdun, guztiok giñan gazteak eta gure arpegieta izua ikusi arren, gure biotzetan itxaropena zan nagusi.

Loturak askatu eta or goaz itxaso deritxanaren barrura gau illunean ezetariko argi barik.

Itxaso bare egoan baiña tramankulua asko mugitzen zan.

Alboko batzuk asi ziran botaka. Neu be, areik ikusikeran gorazkoka asi nintzan, baiña ez neban barrua utzitu.

Bidaia amaigabea zan eta guztiok gengoan otzez dardara, barrua utzik genduala eta goseak jota.

Ba-al dozu eztalkirik lepotik botateko? –galdetu neutson buruzagietariko bateri. Ezetz erantzun eustan, aurdun egozan emakumeak zirala aurrerengoak eta ez egoala guztiontzat eztalkirik.

Gu ez gengoan oituta olako otzik jazaten. Andik gitxira etorriko zana jazateko be ez gengoan gertatutik: Itzalezko orrua ateraten eban aizeak eta berealako baten dana asi zan bortizki mogitzen. Arek ez eukan amairik, geroago ta gogorraoak ziran itxasoak aizearekin batera emoten euskuzan zaplastakoak.

Jentea artega egoan, buruzagiak bakarrik eukan lepotik ziztilika gauza gorri bat, beste iñok be ez geunkan ezer lepotik dingillizka, bildurraren kirri izan ezik.

...

Krakadaka asi zan ontzia eta alako baten, braust!!! Erdi bi egin zan eta jendea itxasora!

Zotiña ta olatu-otsa bat egin ziran, anpuluena gatza eta itxaso gazia uztartu ziran. A zan gure amaia! Agur gure egitasmo eta ondo izatekoaren ametsak! A zan leen munduak emoten euskun ongi etorria! Etxean baiño obeto izateko ustez, erioaren atzamarretan jausi gara!

Segundu gutxitan pasau jatan ni jaio nintzanetik eta azken-momenturainoko erreparaso. Nire barruan erruaren agertaldia be izan zan une orretan: Zergaitik ez nintzan pozik egon neukan apurrarekin?

Maitasuna ez jatan faltako eta gauza materialak euki ez arren, bizirik egongo nintzan. Orain ezingo dodaz ikusi etxe barria, uztak, eta arrebea nagusituta.

Beste askok, seguruenik, beste era batera pentsatuko eben: “Errixkan gosez iltearen orde, ariñago amaitu da nire sufrimentua”. Ori be ondo ausnartzeko bizipena da!

Beste askoren antzean, nire kasua ez zan tamaiñu onetarañño irizten: “Obeto izatekoan” itxaropena egia biurtu zedin, besterik ez neban nai. Baiña gauzak sarritan ez dabe norberak uste izandako orren antzik artzen, patuaren tornua saiest-eziña da eta gizakiak konformatu bear dogu daukagunagaz.

...

Urrengo egunetan onako au irakurri geinkean egunkarientan. “Ogei ta amalau afrikatar agertu dira itota Tarifa’ko kostaldean. Oraingoan ez da iñor bizirik gelditu. Gorpu asko desagertu izan arren, itxasoak giza-gaisoen illotzak leorrera jaurtiz jarraitzen dau. Iñok ez daki ziur zenbat joiazan pateran”.

Barrero be ez-bearra nagusitu da etorkiñen artean. Noiz arte?

Asier Legarreta

## ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egilea: “Euskerazaleak”

Kudeatzailea: Fernandez’tar Karmele

Idazkolaria: “Euskerazaleak”

Zuzendaria: Olazar’tar Martin (Euskerazaintzakoa)

Idazleak: Atutxa’tar Paul (Euskerazaintzakoa)

Arrinda’tar Anes (Euskerazaintzakoa)

Aldalur’tar Justiñe

Egaña’tar Gotzon

Solozabal’dar Paulin (Euskerazaintzakoa)

Martiartu’tar Iñaki

Latiegi’tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

## BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI’KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

# ARGIRANTZ

San Antontxu oiñez etorri ta zaldi gaiñean joan zan. Ordurako eguna asko luzatzen asita egoan. Izan bere, argizaleak argia nai. Ikasle onak jakituriaren argitasuna billatuten dau bizitzan.

Gizonaren jokabide guztiak bide ortatik doaz. Au berez, eskatzen dau personearen izaerak. Almen eder batzuk daukaguz, jakituriz ondo jarriak ta bizia egokitasunez aurrera joango ba-da, argiz edertu bear da, bizia geroago ta ederragoa izan dedin.

Gaur, gu billa gabiltzean argia eguzkia da, ta aren inguruan, bira biraka, dabil lur illuna. Eguzkia gure bizitzarako argi, osasun ta ogia da. Gizon bat ardu bage, ai, iltera doa... abestu eban euskaldunak... Ta gizadia ta izadia argirik bage, basamortura iltera doaz.

Ori dala-ta, neguak etorri bear dau, izadiak atsedena artu dagian. Gizonak lo egin bear dau gabaz, nekeak arindu, indarrak barritu ta biziari bere zentzuna emonez frutu ongarriak atera erazoteko, bai izadi nai gizadiarentzat.

Udabarrirantz goazen aldi onetan, sarats negartiak eta mimosak asten dira, lenen, loratzen. Onek, benetan dira landara argi zaleak ta eguna argitzen asi barri dagon artean, euren poza ta abegi ona lorea emonaz agertzen

dabe. Argia ba-doa indartzen ta eguna luzatzen ta mendi, zelai ta baratzak geroago ta orlegiago egiten doaz.

Emen ez da geratzen argiaren indarra. Eguzkia sua da ta ori-gaitik iñor ezin daiteke arengana urreratu, baiña urriñera, bere berotasunaren eran, frutu bizigarriak emoten ditu. Begiratu daigun udabarriko zelaira. Zugatzak erne-miñetan dagoz ta zelaiak orlegi-orlegi, alderdi guztietatik edertasuna opatzen.

Neguan naiko euri ugari ta eder egin dau ta udan munetan lora zuriak inguruak apaintzen agertuko dira, baiña lorerik ederrenak zugatzetan agertzen dira. Mertxika, sagar, madari, okaran loraz betetuko dira ta eguzkiaren berotasunpean uda-goienerrantz zenbat frutu eder emon bear ete dabe gizadiarentzat...

Ori-gaitik udabarru ta udako argiak gizadiari poza eta bizia emoten dautsez. Betor argia eguzkiagaz batean ta edertu bedi gure izadia lagun guztiak izan dagien eguneroko ogia. Betor argia, munduan lapurkeririk izan ez dedin. Betor argia, zuzentasuna nagusi izan dedin gizonen artean.

PAULIN

## NASTEAN

### SANTU EUSKALTZALEA: IGOKUNDEAREN MARTIN

Igokundearen Martin ,santua dogu eta santu euskalduna. Batzuk Beasain'en jaio zala diño, beste batzuk Bergara'n eta ba-dira Ibarrangelu'koa dala diñoenak be.

Ikasi daiguzan santu onen jakingarriak eta aztertu beronen euskalzaletasuna. Bere eguna zezeillaren 6a da.

...

Beronen abizena ez dakigu Loinaz ala Agirre ala bes-teren bat izan zan beronen edestilariak diñoenez, baiña oneik ez diño jakingarri pozgarri bat, gaur emen agertuko doguna.

Frantziskotar euskalduna dan santu onek euskeraz idatzi ebazan eskutitz batzuk, martiritza izan baiño lentuago. Bera ikertzera joan ziran espetxean egoala Osaka'ra eta onei egin eutsezan eskutitzak euskeraz, iñok arrapatzen ba'ebazan ulertu-eziñak izan eitezan.

Nondik jakin dodan ori? Ba, errez, Archivo Iberoamericano aldizkarian, XLVI-julio-1921: Ostera egin eban batek idazten dau. Itxas-ontzia urperatu-ondoren Osaka'ra joan zan eta an ikertu eban Igokundearen Martin eta beronegaz igaro eben gabon-gaba, santuaren azkenengoa 1596n.urtean.

Agiri orrek, erdi-inguruan, dakar ain arrigarri jakun albiste au: Landetxo jeneralaren lagunak euskerazko eskutitzak artu ebazala, Igokundearen Martin'ek idatzita.

Gabon-gaba igaroteko eldu ziranean 1596n.urtean, abenduaren 22n.egunean gabeko 9'retan, ondo errukarri eta erdi-itota.

"Eldu giñanean, -diño kontatzailleak-eskatzera eroan ginduezan guztiok eta an sua egin eben gu berotzeko eta ondo etorri jakun. Eta berotzen gengoala erriko jauntxu baten etxezaiña etorri jakun eta frantziskotarrak espetxean egozala esan euskun, kurutzean ilteko... Eleizara joan giñan autortu eta jaunartzeko (Gabon-Gabea)... Eta aurkitu gendun Agirre'tar Martin, 12 gizonek zaintzen ebela... Pozik artu ginduzan aita onek, eta ain errukarri gengoalako, billosik, eta oiñutzik negar egiten eban, neguko otzik gogorrenak ziran-eta... Gaba eta urrengo eguna igaro genduzan beragaz berbetan eta negarrez. Gabon Gabea autortu eta jaunartu egin gendun... eta eroan ebezan... 100 leguara.

"ETA GERO ERABAGI ZAN EUSKERAZ ESKUTITZ BAT EGITEA AITA MARTIN'ENTZAT ORRELAN IÑOK ARTU ETA IRAKURRI EZ DAGIAN, LEN BE IÑOZ JAZO ZAN LEZ.ETA ERANTZUNA BE EUSKERAZ IDATZIA ARTU GENDUN ETA BESTE ESKUTITZ BATZUK BE EGIN GENDUZAN EUSKERAZ, ALKARRARI ALBISTE ASKO EMOTEKO"

Zori txarrez ez daukagu eskutitz orreïn zatitxu bat be. Ortik aterako gendun, beste gauza askoren artean, gure Martin santua nongoa zan. Baiña orain artean ez da ezer agertu. Bear ba'da agertuko dira eta pozik artuko doguz.

Olazar'tar Martin'ek

## ETA 17.<sup>a</sup> LOPE DE AGIRRE, ANKERRA

Oñate deritxon erritik urten eta Arantzazu'rantza goazela eskumaldera dago erritxu bat Araoz izeneko. An dago San Elias'en baseleiza ospetsua, euskalerrian lenengoetarikoa, eta antxe iru etxe Agirre izenekoak. Erri guztietan edo geienetan daukagu Agarre, Agerre edo Agirre izeneko etxeren bat. Euskalerrian guztiz 300 dira. Araoz'ko Agirre'n jaioa dogu gure Lope.

Lope au, be beste askoren antzera, Ameriketara joan zan eta an ankerkeri edo krueldade ikaragarriak egin ebazan. Ez uste izan, gero, bera bakarrik izan zanik ankerra. Asieratik ara joan ziranak, batez be inditarren aurka oso ankerrak izan ziran. Ez ainbeste euskaldunak, gizati lez ezagunak doguz geienak, gogoratu Legazpi, Urdaneta edo Bolibar. Baiña gure Lope ankerra be ankerra izan zan.

Gizon aundi onen lareungarren urtea ospatzeko Akademi Ibiltaria batu zan Araoz'en eta oneik atera eben liburu batetik artzen doguz jakingarriak.

1544n. urtean Lima'n daukagu Lope de Agirre. Laster ikusi ebazan bere bizitza makurtuko eben ankerkeriak: Ankerkeri baten barruan ikusi eban bere burua eta iges egin bear izan eban.

Lope de Agirre ara eldu zanean, gogoz sendoa zan, maltzura, ekintzaillea, izekazalea. Ona emen zelan apena artu eban Eskibel epailariaren aurka Garzilaso de la Bega idazleak diñoanez.

Potosi'n 1551n. urtean, Lope taldetxu baten buru zan eta inditarrak izkulluz zamatuta erioazan, Eskibel alkateak Lope ikusi ebanean, baitu egin eban eta indiarrak txarto erabilten ebazala salatu: 200 zigorkada eta isuna. Lope'k inditarrak beti erabilten zirala orrelan esan eutson, baiña bere esanak alperrik izan ziran. Lope'k zigor orreik baiño urkamendia naiago ebal esan eutson.

Zortzi egun atzeratu ziran 200 zigorkadak, baiña berak bereala beteteko eskatu eban eta bete be bai. Dana zan baltzuea, dana odola, aragia agertu zan.

Zigor-lekutik askatu ebanean, ur gazia bota eutsoen, berak eriotzea eskatzen eban artean.

Apur bat osatu zanean, ez eukan beste egarririk apena artzea baiño.

Eskibel'eri emon eutsoen barri au eta onek iges egin eban. 350 legua oiñez ibilli-ondoren Lima'ra eldu zan, baiña bere atzetik eldu zan Lope be. Barriro iges egin eban Eskibel'ek, 500 leguara egoan Kuzko'ra. Agirre'k oiñutzik jarraitu eutson. Iru urte ta lau illebate egin ebazan Eskibel'eri jarraitzen, guztiz 6000 km edo 200 legua, mendirik mendi. Azkenean Eskibel Kuzko'n geratu zan nekatuta eta ondo zäintzen eban bere burua, baiña Agirre zain egoan aukera bat itxaroten. Astelen baten, serbitzailleak urten zirala jakin ebanean, sartu zan Lope'ren liburutegira eta an aurkitu eban lotan, emon eutsan aitzokada bat eskoiko belarri-ondoan eta beste batzuk gorputz osoan.

Lagunak berrogei egunez euki eben gordeta Lope. Aukera bat izan ebanean atera eben Kuzko'tik, gorputza margoztuta eta eiztari-itxura ezarrita, morroi baltza ba'litz lez, eguerdian eta korrexidoraren aurretik.

Guamanga'ra, bere senide baten etxera joan zan eta an egon zan apur bat osatu arte. Laster urten zan barriro. Albarado'ren aldiko matxinada igaro zanean onek matxin-zale guztiak lau zati egin ebazan: Lope de Agirre'k olakoetan asko ekian eta iges egin eban eta urtebete baiño geiago igaro eban koba baten barruan ezkutatuta, sustraiak jaten eta inditar batek laguntzen eutsola.

1554n. urtean Albarado'k parkamena iragarri eban eta Lope de Agirre'k ori onartu eban.

Txukinga'ko gudaldian, 1555n. urtean erren geratu zan eta arrezkero Elbira bere alabeagaz bizi zan. Auxe da Lope de Agirre'ren bizitzako gozotasun bakarra, baiña urrengo sei urteetan, Elbira'gaz batera dabillela, gauza arrigarriak jazo ziran.

1560n. urtean Urtzua'ren ibillaldian Omagua ta Dorado'ra joan ziran eta Lope de Agirre Ameriketako edestian dan gizonik eztabaidagarriena lez geratu zan.

Ez aitzu Lope de Agirre beti agertzen zala erregearen eta bere ordezkoen aurka. Il ebanean eskubide osoz il eta lau zati egiña izan zala agertu eben eta bere etxeak bota eta soloak gatzez erreteko agindu eben eta bere seme-alabak, legezkoak naiz legez aurkakoak betiko "infame" lez agertu ebezan.

Lope de Agirre'k eskutitzak egin ebazan baiña ospetsuena II Felipe erregeari egin eutsana da. Ona emen eskutitz osoaren zati batzuk itzez itz euskeratuta:

"España'n jaioa ta Karlos azpiratu-eziñaren semea dan Felipe Erregeari: Lope de Agirre nok, ire menpekorik apalena, nire gurasoak erdi-maillakoak dozak eta ni neure aurrerapidean, leiñargia, euskalduna jaiotzaz, España'ko erreñukoa eta Oñate uriko erritarra.

Gazte nintzoala igaro nijuan itxas aundia Peru'ra etorteko.

Nire ustez, Errege eta Jaun agurgarria, nitzat eta nire lagunentzat ez aiz orrizan, ankerra ta esker txarrekoa baiño. Eta uste joat lurralde onetatik idazten eutienak, urrin dagozelako iruzur-tu egiten eutiela...

Eskumako izterretik erren ñagok Txukinga aranean arka-buz-danbada bi emon jeustezelako Alonso de Albarado mariskalagaz ñengoala, ire agindua eta abizena jarraitzen, ire aurka matxiña zoan Hernandez Giron Frantzisko'ren aurka, eta neu eta nire lagunak be olakoxeak dozak eta olakoxeak izango gozak il arte, ire erreñu orretan jakin jogukalako zein ankerra, berbea beteten ez dakiana azen eta orregaitik lur onetan ire agintzak Martin Lutero'renak baiño sinisgarritasun gitxiago jaukelako...

Begiratu, begiratu egik, Errege España'tar orrek. Ez adi izan anker eta esker txarreko eure menpekoentzat...

Nire ustez errege gitxi jozak gaiztokira, erregeak izan be gitxi dozakelako, baiña asko ba'litzozak bat be ez litzakok joango zerura, antxe be zuek Luzifer baiño txarragoak izango zintzakelako, ez daukazue besterik dana eskuratu naia eta giza-kin odolaz asetzeko gosea baiño... Ire menpeko dozaken euskaldunen seme nok, nik, ire esker txarragaitik il arte matxino noken

Lope de Agirre ibiltariak"

**Olazar'tar Martin'ek**

# LEGE ZARRA (21): ILBURUKOAK ETA ILBURUBAKOAK

## **I legea: Senar-emazteak batera egiten daben ilburukoa.**

Baita esan eben: Senar-emazteak alkar arturik ilburukoa edo agintzariak batera egiten ba'dabez, or datorrena dana balioko izan daitela eta urtebete ta egun bat barruan bietatik bat ilgo ba'litz, bizirik gelditu danak ezin leike indargabetu eta or agertzen dan ondasunik ezin daike saldu or agintzen dan erara baiño eta geroago egindako zorrakaitik be ezin daike saldu, erdiaren gozamina bertzat dala, baiña urtebete ta egun batera biak bizi ba'dira idargetu eta beste ilburuko bat egin leike bietatik edozeiñek, azken naiak egiñez.

## **II legea: Ilburukoaren indargetzea zelan egiztatu.**

Baita esan eben: Norbaitek eskribau baten eta lekukoen aurrean bere ilburukoa egingo ba'leu eta oiñordekoa izendatu, eta ilten danean oiñordekoak lekukoak ekarrita ilburugiñak idargetu ebalta eta beste oiñordeko bat izendatu ebalta egiztatuko ba'leu edozeiñek gizonezko lekuko biren eta emakumezko baten aurrean. Olako egiztapenak sarritan guzurrezkoa izaten diralako, auxe agindu eben: Oiñordekoa izendatzeko eskribauaren eta lekukoen aurrean egindako ilburukoa, ezin daitekela lekukoen aurrean eskribau bagerik indargetu.

## **III legea: Oiñordekoa zelan autatu.**

Baita esan eben: Askok il-agiñean ezin izaten dabela ilburukorik atondu eta beste bateri almena emoten dautsoela, ilten danean edo umeak txikiak diranean zein oiñordeko izendatu ez dalako ikusten, orregaitik ordezkoa izatea onartu daitela eta ordezkokoak urtebete ta egun bateko epea izan dagiala izendapen au egiteko baiña umezurutzak adiñekoak ez ba'dira bear dan besteko eretia izan dagiala ordezkokoak izendatzeko baiña bere zeregin au bete bagerik ordezkoetariko bat ilten ba'da, bizirik dagozan ordezkokoak almen ori izan dagiela.

## **IV legea: Eskribau bagerik egiten dan ilburukoa.**

Baita esan eben: Bizkaia menditsua dan lez, erritarrak alkarrengandik alhenduta bizi dira eta batek ilburukoa egin bear dauanean, ez da izaten eskribaurik sarritan, eta legezko lekukorik be ez. Orregaitik agintzen dabe: Edozeiñen gizonezko biren eta emakumezko baten aurrean ilburukoa egiten ba'dau, baliozko izan daitela eta lekuko orreik ilburugiña il eta irurogei egunen barruan aurkeztu bear dabe eta oiñordekoak kanpoan ba'dagoz lurraldera etorten danean asita, epe beraren barruan, baiña epe ori igaro ezkerro ez daitela balioko izan.

## **V legea: Lur-ondasunak eta mogikorrak zelan erabilli.**

Baita esan eben: Ilburukoa eskribau barik lekukoen aurrean egiten danean, askotan iruzur egiten da eta orre-

tan auzi asko sortzen da. Orregaitik agintzen dabe eskribau bagerik egiten dan ilburukoan ta azken-naian, familiakoak ez diranai ezin leikio bostena baiño geiago itzi eta illetak eta eleiz-egintzak bosten orretatik ordaindu bear dira eta ondorengorik izan ezik bosten au arimearen alde-rako itzi daikela, ez geiagorik, ondasun mogikorrai buruz, ostera, ondorengorik ez ba'da, nai dauan erara itzi daike, beste ezer baiño lenago illetak ordaindu ezkerro.

## **VI legea: Senar emazteak ondasunak zelan erabilli, banan ala batera.**

Baita esan eben: Senar-emazte biak batera seme-alabaren bateri, beste guztiak lur-zati aundi edo txiki bategaz baztertuz, euren biena dana emoten ba'dautsoe, azkenean be ori egin leikee, biak batera naiz banan azken naia egin da.

## **VII legea: Noz ezarri seme-alabai eginbear bat.**

Baita esan eben: Gurasoak besteak baztertuaz, marai-pillo bat edo beste edozein ondasun bateri izten dautsoela, eta baztertuak izan diranai eginbearren bat leporatu, eta orregaitik auziak sortzen dira. Orregaitik agintzen dabe: Gurasoak bizi-aldian naiz eriotz-aldian ezin daikeela eginbearrik ezarri egin dan baztertzea egin dalako. Eta eginbearrik ezarten ba'da, utsa izan daitela.

## **VIII legea: Ilburukorik ez danean zelan ondasunak banatu.**

Baita esan eben: Iñor ilburukorik egin barik ilten ba'da, legezko ondorengorik euki ezkerro, oneik izan daitezela ondasun guztien oiñordeko, maillaz mailla, eta ondorengorik ez ba'dago, aurretikoak izan daitezela oiñordeko: lur-ondasunak etorbidekoai emongo jakez. Ama bizirik ba'da eta amaren aldeko ondasunak ba'dira, amaren senideak artu dagiezala, aita bizirik ba'dira be aitaren aldekoak ezer artu bagerik: baña ondasun mogikorrak aitaren eta amaren senideen artean bardin banatuko dira erdi bana, il baiño lenago beste bateri itzita ez ba'dagoz.

## **IX legea: Beste ezkontza bateko seme-alabak diranean zelan jokatu**

Baita esan eben: Guraso batek bigarren ezkontzako seme-alabai ezin daikioe itzi lur-ondasunik, lenengo ezkontzakoai baiño eta onein artean nai dauanari bizitzan naiz eriotzan.

## **X legea: Arimearentzat zer itzi daiteken**

Baita esan eben: Aurretikorik ez ondorengorik ez dauken gizon-emakumeak lur-ondasunen bostena baiño geiago ezin daikela emon bere arimearen alderako eta bosten au ondasun mogikorrik ez ba'dauke.

**LEGE ZARRA (22): ADINBAKOEN ONDASUNAK ZELAN ZAINDU****I legea: Nor izan umezurtzaren aitordea.**

Lenengo esan eben: Senarra edo emaztea il eta aren seme-alabarik edo ondorengorik geratuko ba'ltiz, bizirik dan aita edo ama izango da arduradun, eta onen ondasunak bere ardurapean eukiko dauz eta euren gozamina izango dau baten bat ezkontzeko dagoan artean. Ondo zaindu dagizala, azi, jaten emon eta irakatsi. Ama alargun jantzia daroan bitartean arduratuko da. Aitak jaten emotetik eta gozamenik nai ez ba'dau, epaikariak beste aitorde batzuk izendatuko dauz senide urrenen artean, aitaren aldetik bat eta amaren aldetik beste bat eta onein ardurapean egongo dira adinbakoak eta euren ondasunak.

**II legea: Adinbakoia amazortzi urtekoa danean, ardu-rea artu dagiala.**

Baita esan eben: Aitatutako zaintzailleak adinbakoak eta onein ondasunak ogeita bost urtekoak izan arte euki dagiezala, baiña lenago naikoa zurtuta ba'dagoz, doala epaikariaren aurrera eta aske izate ori eskatu eta epaikariak argibideak ekarri eta atakotzat agertu dagiala eta ondasun, frutu eta errenta guztiak oneri emon-erazo.

**III legea: Aitordearen saria.**

Baita esan eben: Aitordeak zaintzearen ordez, epaikariak ezarten dauan saria izan dagiala, neurri batez artu ebela kontuan artuta.

**LEGE ZARRA (23): GURASOEN ETA AITITA-AMAMEN JANARIAK****I legea: Doan ondasunak emon eta gero, artzaillea eta onen umeak.**

Lenengo esan eben: Batzuk bizi dirala seme-alabai edo senideai ondasunak emoten dautsezala euren janariak eta zerbitzuak artzekotan eta artu dauzana adinbako seme-alabak dauzala ilten ba'da, eta olakoak adinbakoai iruzur eginda, euren seme-alabaren bati emoten dautsoezala, edo deiak egin eleizan eta saldu, eta ori alboratzeko agindu eben: doan emoillean deiak eleizan egin dagizala adinbako epaikariak aginduta, eta aitorde ta arduradunak bizigarriak emotera bearturik geratzen dira eta aitita edo amama bizirik danak ildakoaren ondasunen erdia bizigarritzat eskatu dagiala.

**II legea: Doan emoillean beste artzekoak baiña lenago izan daitela.**

Baita esan eben: Aitak edo amak seme-alabai janariak eta zerbitzuak artzeko Eskubideagaz ondasunak emoten ba'dautsez eta oneik saldu, eta saltze oneri aurka egiten dautsoe gurasoak, ez dalakoa errazoizkoa sendikoa ez dan bategandik janariak eta zerbitzuak artzea. Orregaitik agintzen dabe: Doan-emoillean bat bizi dala ezin daitekela saldu.

**Olazar'tar Martin'ek**

## Aduanak

Udaletxeak oso astiro eta atzeratuta ibilli dira euren diru-etorriak eratzen. Ez euken, Eleizeak lez, amarrenik, ez euken zergak ezarteko eskubiderik, eta orregaitik euren batzarrak egiteko be eleizpeak artzen ebezan.

Bear ba'da, lenengo sortu zan sarrera arduari ezarten jakon zerga ezarria izan zan eta errietara sartzen zan bidean "fielatoa" ipiñi eben kanpotik etorten zan arduari saltzeko eskubidea emon eta ordez zergea kentzeko. Urrengo erriko azokara ekarten ziran salgai guztiak ezarri jaken olako zergea.

Baiña garrantzi aundiagoa euken lurralde batetik bestera ekarten ziran salgaiak eta orretarko erkien arteko bidean jarri ziran errietako aduanak, esaterako Ubidea'n Araba ta Bizkaia'ren bitartean, eta or ateraten zana Aldundiarentzat izaten zan. Gaiñera sarrera ori ziurtatzeko olako lekuetan Uri edo "villa" irasi eben, esaterako Villaro.

Garrantzi aundiago euki dabe orain-arte laterrien arteko aduanak, esaterako Irun'goak, naizta Europa Batua sortu danetik oneik be euren garrantzia galdu.

Arazo au aztertze, galdera bat: Euskalerrriak non daukoz aduanak? Bere buruaren jabe ba'da, Muskaria edo Tudela'n Ibero ibaiaren ondoan, Orduña'n eta Karrantza-inguruan, eta itxasoetako kaietan eta abar. Baiña Euskalerrria España dala uste dabenak Irun'en eta Auñamendi'ko bideetan eta kaietan.

Arazo onek gorabeera asko izan dauz gure edestian eta batzuk aztertuko doguz.

Labayru'ren liburuaren VI 89 eta 124 eta abar orrietan.

1715n. urtean Erregeak Gipuzkoa'n agertu dala diño aduanen arazoa eta aduanak ipinteko agintzen dautso, Gipuzkoa'n egin dan lez, baiña jakiña da ori gure foruen edo lege zarren aurka datorrela. Dana dala, agindua ainbat lasterren aduanak ezarteko da.

Antza dagoanez erantzunak agertu jakozan eta erregeak atzerantza egin bear izan eban

1717n. urteko abenduaren 16n. egunean barriro agertzen dau aduanen arazoa. Erregeak ez zala bere asmoa diño, bizkaitarren eskubideak gitxiagotzea eta bere agindua zan itxas-ertzeko kaietan egozan aduanak, lenago egon ziran lekura, lur-barrura, eroateko eta erreztu daitela bizkaitarren salerosketea.

Ikusten da erregeak itzaltasuna daukula bizkaitarrai, baiña barriro be laster agertuko da arazoa eta azkenean berea egingo dau.

**Olazar'tar Martin'ek**



---



---

# ABIZENAK

---



---

**Otamendi:** Gipuzkoan zabalén. Otea dagon mendia. Alegin 1664.

\*\*\*

**Otaola:** Eibar'en eta Markiñan. “-ola-” atzizkia danean ugaritasuna da. otea ugari dagon lekua. Arrasaten 1596.

\*\*\*

**Otazua:** Arrietan asko eta etxea be bai. Araban Otazu da. Toki otatsua esan gura dau. Tolosan 1346.

\*\*\*

**Oteiza:** “Ote-ezaguna da”, “-iz-” ugaritasuna da “Judiz-mendi” judatarren mendia. Orduan, “oteiza” ote asko dagon lekua.

\*\*\*

**Ojanguren:** “Oian-” baso baltza ba'da, gorengo baso baltza edo baso baltzaren goiena litzake. Azkoitian 1484.

\*\*\*

**Oiarbide:** Gipuzkoatik Bizkaira. “Oianerako”, basorako bidea da. Zumarragan 1595.

\*\*\*

**Oiarzabal:** Baso baltz zabala edo leuna esan gura dau. Azkoitian 1464.

\*\*\*

**Ozaeta:** Ozaetan 1160. “Oza” asko dagon lekua da baiña ez dago “oza” ori zer dan. Bedarren bat.

\*\*\*

**Pagaldai:** Pagoak dagoen aldea. Bolibar 1605.

\*\*\*

**Pagasarri:** Pagoak dagozan sarria edo berezia.

\*\*\*

**Pagoaga:** Mendarotik. Pagoa dagon lekua. Ezkiogan 1411.

\*\*\*

**Pagola:** Pago asko dagon lekua. Tolosan 1595. Napa-roatik etorri eta Gipuzkoan eta Bizkaian bizi dira.

\*\*\*

**Peña:** Karrantzan. Erderaz be abizen bardin bat dago Mena ibarretik sortua. Antxiña “pina” izan zan. Ez daki-gu zer esan. Ortik Pinuaga. Izena San Juan de la Peña'n dago oso antxiñatik.

\*\*\*

**Perea:** Aiala ingurutik dator eta Bizkaian Basauritik Somorrostrora eldu da. “Berea”ren aldakuntza izan leite-ke. Jerusalemgo zaldunen artean 1579.

\*\*\*

**Perurena:** Baztanen. Peru'ren etxea da. Iruña 1780.

\*\*\*

**Pikaza:** Bizkaian. Ikoen lekua edo aldatz aundia dagon lekua. Ez dauko zer-ikusirik erderazko “Pica-za”gaz.

**Pildain:** Gipuzkoakoa da. “-ilda-” barruti-lekua da, “P-” gero ezarria eta “-ain” gainean esan nai dau. Bea-sain'en 1716.

\*\*\*

**Plazaola:** Gipuzkoan. Plazan dagoan burdin-lentegia. Legazpian 1532.

\*\*\*

**Pujana:** Otxandiano-aldean. “-usa” grama deritxon landara bat da, “P-” gero ezarria eta “-ana” toki-atzizkia. Bergaran 1650.

\*\*\*

**Kereizaeta:** Azpeitian eta Elorrrion. Kerizak dagoen lekua da. Azpeitian 1625.

\*\*\*

**Kejarazu:** Kereiza asko dagon lekua. Arrasaten 1625.

\*\*\*

**Kintana:** Enkarterrian. Latiñetik artua da: “Kintus”, eta izen ori eukan baten lurrean dagoan etxea da, bardin Luzena, Martxena, Arazena, Rekena. “-Ena” atzizkia euskereak beste izkuntza batzukaz batera dauka.

\*\*\*

**Renteria:** Bizkaian. Donosti-ondoan. Zergak (erren-tak) eskatzen diran lekua da. Balladolid'en 1726.

\*\*\*

**Rementeria:** Olakaz batera doa eta burdiñea erremin-ta edo lanabes biurtzeko tokia da. “Ari” lanbidea.

\*\*\*

**Respaldiza:** 1093n. urtean Arispaldiza zan. “Aritz-” da oiñarria eta besteak atzizkiak. Aritz asko dagon lekua da. Balladolid'en 1701.

\*\*\*

**Rioja:** Donostian 1606. Erri otza? ala Rio oja edo osa? “Osa” guztien lurra izan leiteke.

\*\*\*

**Olazar'tar Martin'ek**

# GATZAREN MATXIN-ALDIA (REBELIÓN DE LA SAL)

Bizkaitarrak eta euskaldun guztiak beti artu dabe ardura aundia euren lege zarretan dagoana bete daiten.

Lege zar batek diñoana da bizkaitarrak zerga guztietatik aske dagozala, euren suete edo “fogerea”ri dagokiona urtero ordaindu ezker, eta jaunak edo beste edonork zerga bat ezarri nai dauanean, eskaria sindikoari egingo dautso eta onek batzarrean aurkeztuko dau eta antxe artuko da ebatzia zerga ori ordaindu ala foru-baimena ukatu ondoren “men egin baiña ez bete” egingo jakon.

...

Lege ori oiñarri dala ulertzen da zer izan zan gatzaren matxinaldia eritxon zori txarreko jazokizuna.

Gatza ba-geunkan Euskalerrian (gogoratu Añana’ko Gatzaga edo Buradone’ko gatzagatxuak edo Leintz’eko gatzaga). Eta bear ba’da erosi be egin bearko zan. Eta salerosketa guzti onei ezarri nai izan jaken lege zarraren aurka doan zergea.

Labayru’ri jarraituz agertuko dogu arazo au: V, 228-246.

...

1632n. urtean, iraillaren 29n. egunean aukeratu ziran aldun nagusiak eta orrei egokiezan urte bietan jazo ziran gauza mingarri oneik, bai goiko gobernuak eta bai emengo korrexidore zan Juan Kalderon de la Barka’k ain txarto jokatu ebelako. Au Lope Morales korrexidorea kanpoan egoala daukagu ardura ori beteten.

Kalderon jaun onek gatzari salneurria ipiñi eutson, ogeta bost erreal, eta ortik amaika izango ziran erregearentzat zergea. Bilbao’n zabaldu eban agindu ori eta oso txarto artu eben bizkaitarrak.

Urrillaren 16n. egunean batu ziran erri-agintariak gaia aztertzeke eta agindua errietara zabaldu ez daiten orrelan erantzun txarrak alboratzeko ustez.

Agindu ori ez zala legezkoa esan eutsoen Kalderon’eri olako aginduak batzarrean onartuak izan bear ebelako, sindikoak aztertu ondoren. Kalderon’ek ez eutsen jaraminik egin eta agintariak agindu ori ez beteteko ebatzia zabaldu eben, gatza askatasun osoagaz saltzeko agindua. Eta iñor orregaitik baitzen ba’zan, aske izteko, erregearen zerbitzuak ori eskatzen ebalako. Eta bear izan ezker Gernika’ko batzarra egin daite-la. Korrexidoreak berak emongo eutson barri ori Jauna zan erregeari.

Korrexidoreak bere lengo agindua sendotu eban eta beteteko agindu eta barri ori iñori emotea debekatu eutsen idazkariai. Erri-agintariak euren erabagia sendotuz erantzun eutsoen eta ori egiten ez ba’zan, ondorenen errudun korrexidorea izango zala.

Urrillaren 20n. egun-inguruan, Erri-agintarien agindua zabaltzea debekatu zalako, errian nastea sortu zan eta korrexidoreak alegiña egin eban baretzeko baiña bere agindua kentzeke eta aurkako bandoa emoteko eskatu eutsoenean ez eban nai izan eta sindikoa ta idazkari bat plazan agertu ziran euren agindua zabaltzeko.

Erriak oiuka agertzen eba agintarien bandoa eta korrexidoreari, atea itxita eukala, narriro eskatu eutsoen agindua kentzeko eta forua zaintzeko edo errudun izango zala etorriko diran jazokizunetan.

Korrexidoreak asarre erantzun eban bere aginduaren alde.

Gorabeera oneitan odola be isuri zan, sueteak eta etxeetara sartzeak be izan ziran erri asarrerren danean! Jokabide guztiak kondenatu ebezan eta erregearengana joko ebela iñoen sindikoa ta beste batzuk ara bialduta, lege zarra beteteko eskatuz.

Erregeak Morales bere entzutegikoa bialdu eban bere korrexidoretzara etorteko, Bizkai’ra, eta beragaz etorri zan Ciudad Real’eko Dukea bakeak egiteko eta eskutitza egin eutsen eleiz-ateai: Jakin dodaz zuen gorabeerak eta minduta nago. Arrituta nago erritar ain zintzoak dauken barru-miñagaz erriko eskubideak aldezen dabelako eta dana neure serbitzuan. Emon egidazue jazo danaren barri zeatza eta gero artuko dot bear dan erabagia zuen onerako. Madrid’en 1632n. urteko azillaren 25n. egunean.

Eskutitza ekarri eban Lope de Morales korrexidorea izan zan eta oneri ez eutsoen itzi Bilbao’ra sartzen erritarrak Balmaseda’tik bere korrexidoretza artzera etorreanean: Azillaren 28n. egunetik abenduaren 10n.’era ekin bear izan eban sartzeko. 20n. egunean etorri zan Ciudad Real’eko duketa eta aundikiro artu eben, beti lez, eta alegindu zan dana baretzen. Bilbao’ko alkate egin eben eta onartu be bai, baiña matxinak ez eben nai Lope Morales korrexidore izaterik, zigorraren bildur ziralako.

Erregeari 1633n. urteko urterillaren 13n. egunean erantzun eutsoen eleiz-ateak: Artu dogu azillaren 25’eko zure eskutitza Lope Morales korrexidorearen eskuz. Beti zure alde gagoz. Jazo diranen jatorria gatzaren zergea izan da eta Korrexidore –ordearen agindua lenengo jaunaren ziña izan zanetik gure legeak beteten diralako. Zu errukitsua izango zarala uste dogu eta lege zarra beteteko aginduko dozula (1633-01-13).

Erri-agintariak orrillaren 23n. egunean batu ziran, Lope Morales eurakaz ebela eta lenengo erregeari barria emon bear jakola esan eben lege zarrak gorde dagizan eta emengo zintzotasuna agertuz.

Goizeko seiretan eskariak endo egin eta auzibidea amaitu-ondoren, korrexidoreak epaia emon eban: Seiri eriotzarako epaia: Iru espetxean garrotera (Morga, Sarabia, Urtusaustegi) eta beste iru plazan urkatuak izatera (Larabaster eta Bizkargana anaiak) errementariak. Eta iges egin ebneak Etxarte, Arana, Armona abadea aurkitu ez ebena. Eta bakez bakez bete ziran epaiak.

Orain azaltzen da Erregeak Bizkaia’ri egin eutson grazia, gatzaren arloan lege zarra beteteko. Jentea pozik egoan orrein eskuetatik askatuak izan diralako. Bermeo’tik Donibane Loitzun’era eun gizon joan ziran iges, Gernika’ko batzarrean izandakoak.

Erailak Bilbao’ko Santiago’n izan ziran obiratuak, batzuk San Frantzisko’n, Kalagorri’ko gotzaiñaren aginduz: Gonzalo Chacon de Velasco zan eta Bilbao egoan artzain-ikustaldia egiten.

Zuzentasuna bete zanean, laster ageru zan errege-agindua lege zarraren aurkako zergea kentzen.

Baiña gobernatzaillearen zerga-egarria aundiago biurtu zan eta zergak ezarri jakezan eunai, sedai eta abar, Betikoa! Lenengo kendu gero bigundu eta azkenean kendu!

**Olazar’tar Martin’ek**

## NASTEAN

# ZUGATZ “MALATO” EDO “MAILLATUA”

Gure legeak eta edestiko jazokizunik gogoangarrienak zugazpean edo “so el arbol” egin dira eta orregaitik daukaguz Bizkaia'n zugatz gogoangarriak, beti aritxak.

Aretxabalagana'n, Bizkargi mendiaren barrenean zinlekua, Gernika'ko arbola guztien artean ospetsuena, Abellana-da'koa Enkarterriko batzarretarako, Gerediaga'koa Durango-aldeko batzarretarako eta Luiando'ko dagoan zugatz mallatua.

Azkenengo onek gudariakaz dau zer-ikusia: Bizkaiatarrak doan joan bear izaten eben gudaritzara Aldunak dei egiten ebenean eta Bizkai-barruan, baiña or Luiando-inguruan amaitzen zan Bizkaia eta ortik aurrera joateko ez egoan iñor beartuta: Espatak zugatzean sartzen ebezan eta orregaitik zugatzari “maleato” edo “maillatua” izena jarri jakon.

Gure “insumisioak” or euken zeri oratua. Ez dot iñoz olakorik entzun.

Eta Jaunak gure gudariak ortik aurrera jarraitzea nai ba'eban, mendiz bizkairantza izan ezkeror illebeteko soldatea edo saria ordaindu bear eban aurretiaz eta mendiz arrantza joatekotan ille bikoa.

An egoan zugatz ori, baiña larregi zauritu ebelako-edo, igartu egin zan eta ortik artzen dogu aria, Labayru'ri jarrautuz (VI, 51 eta 128), gaurko barri oneik agertzeko.

...



1708n. urteko aldunen batzar baten Zugatz maillatua begien aurretik aldendu zala gogoratzen dabe eta gure lege zarren 5n. atalean eta lenengo zatian agertzen dala bizkaitarrak, jaunak deituta, gudaritzara joaten diranean, Luiando'n zugatz ori dagon lekutik aurrera ez ebela joan bear aurretiaz saria artu barik eta ori orrelan bete izan dala beti. Eta ori beti gogoan izan daiten beste zugatz sartu bear dala lengoa egoan leku beratan eta ondoan arrizko kurutze bat idazki onegaz: “Auxe da Zugatz maillatua egoan lekua”.

...

1723n. urtean barriro agertzen da aldunen batzarrean arazo au azaroaren edo zemendiaren 4n. eguneko batzarrean eta auxe diño aldunak: “Zugatz maillatua izan zan lekua gogoan izan daiten beste zugatz bat sartu bear da, eta ondoan arrizko kurutze bat ipiñi eta idazki bat axe dala zugatz maillatuaren lekua gogoratzeko eta andik aurrera joateko bizkaitarrak saria artu bear ebela. Juan jose Aranguren Sindikoari emon eutsoen agindua erabagi ori beteteko orretarako bear ziran gaiak eta notiñak artuta.

Agindu ori bete dala agiri da gaur Luiando'n.

## EUSKALDUN BARRIENTZAT



Zortzi erruak

KARMELE

# BBK

**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**